

dizkigu; ta Iraizoz-en beste batzuek Arizmendi-ren *Ama Birjinaren ofizio*-tik artuak.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzirik otoitzez amaitu degu.

---

### **Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, 1932'ko Azilaren 18'an.**

Euskaltzain jaun auek bildu dira : Azkue maipuru, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe, Elissalde, ta urgazle dan Ormaetxea. Otoitzez asi da.

1.º Elissalde jaunak Azpañengo ikastetxerako done batzuen izenak nai ditu ta eman zaizkio.

2.º Aita Intzak beste euskal-itx xerenda dakar ta irakuñi digu.

3.º Azkue jaunak ere irakuñi digu: *Curiosidades de un manuscrito de Añibarro*.

4.º Datoñen urteko *Schuchard*-sarirako gai beñi bat aukeratu da : *Palabras latinas euskerizadas sin intermedio de los romances, incluso los nombres toponímicos y onomásticos*. Lanak aurkeztatzeko epea, datoñen Azilañen 30'an bukatuko da.

Ta beste gairik izan ez da, otoitzez amaitu da batzaraldi au.

---

### **Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, Lotazilaren 19-an, 1932-an.**

Bildu diran euskaltzain jaunak abek dira : Azkue maipuru, Olabide, Intzagarai, Altube, A. Intza, Lakonbe, Etxegarai eta urgazletatik Ormaetxea. Otoitz egin da.

1.º Aita Intzak esan digu : Aita Mokoroak Txiletik idatzi diola esanik, ango euskaldun artean euskerazko elizkizun eta beste arazo batzuek euskera utsean egiten dirala : euskerazko idaztiñoak ordea bear lirakela, oraindik ere lan geiago egiteko. Emendik bial al balira!

Erantzun zaio Aita Intzari : Gazteizko kanonigo Sertutxa jaunari idatziko zaiola, euskerazko idaztiño oien eske, *Buena Prensa*-rako argitaratu oi diranak.

2.º Azkue jaunak lan bat irakuñi digu : *Algo sobre antroponimia vasca*.

3.º Aita Intzak, aita Iraizoz-ek bildutako itzak irakuñi dizkigu.

Ta beste gai batzuek urango batzañaldirako utzi-rik otoitzez amaitu da.

---

### **Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, 1932-ko Lotazilaren 20-an.**

Batzar ontan euskaltzain jaun abek bildu dira : Azkue maipuru, Urkijo, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe, Etxegarai, Elissalde eta Ormaetxea urgazlea. Otoitzez asi da.

1.º Iztegiko itz beñi batzuek sortzen jardun degu.

2.º Aita Intzak, Iraizoz-en euskal-itzen zerenda beñia irakuñi digu.

3.º *Schuchard-saria* Agustin Anabitarte jaunari eman zaio.

4.º Datoñen ilbeltzean batzañik izango ez dala, erabaki da ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzañaldia.